

ezagutzen al duzu Donostia?

Ibaetako Tolare

Tolare baserria; zenbat karga*-sagar sartu ote dira XVII. mendeko etxe zahar eta eder honetan, eta zenbat litro sagardo atera bere barnetik? Nork daki!

Ibaetako Tolare, baserri-tolarea eta baserri-arrunta izan zen. Inguru honetako sagasti gehienetako sagarrak etxe honetan jotzen ziren, eta ateratzen zen «mama-gozua», batez ere Antigua auzoko sagardotegietako kupelak betetzen zituen. Bere tolarre-aska oso haundia zen, etxe barruko atzekalde guztia hartzen zuelarik. Hormatik hormara betetzen zen sagar-patsez; ondoren patsolaketa trumukuak jarri eta zubi haundi batean atzekirik zeuden zurezko ardatz haundi batzuekin finkatzen zen patsa hura. Sagardoaren lanak auzolanean egiten ziren. Horretarako, kuadri-

lla bilduz inguruko baserrietatik: Konporta, Andrestegi, Txapaldegi edo Almortzatik, eta baita urrutiagokoak ziren beste baserri askotatik ere.

* Karga. Pisu edo kapazitate neurria, sagar kantitatea neurtzeko erabiltzen da. 6 zakarekin osatzen da karga bat, 160-180 litro sagardo atera daitezke.

IOSU TELLARIDE



Ximon

Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposatua



Nere herri maitea

Nere herri maitea
nik zaitut maitatzen,
gau ta egun zurekin
nago ni pentsatzen.
Zuk didazu bihotza
pozkidaz betetzen,
naizelako lur gozo
honetan aurkitzen.

Donosti eder maite
txukun ta garbia.

zuretako daukat nik
maitasun guzia.
Zera atsegina ta
begiragaria
euskaldun semearen
pozezko kabia.

Erbestera hemendik
joaten naizenean,
nahigabea sentitzen
det nik bihotzean.
Bama kanpotik honumtz
ni natorrenean
poza nabaitutzen det
nere barrenean.

Pepe Artolak (1869-1929) jarri zituen hiru bertso hauek. Eta musika, zoriziko airean. Antel Trabadelok (1956-1935?). Musikari eta aristokrata hain. Trabadeloko markesa baitzen mundu osoan zahar ibili zen kantari Julian Gaiarreren kontseiluz eta Opera Antzoki ospetsuetan abestu zuen arakasta haundiz. Bere azkeneko urteetan jaiotekura itzuli zen. Kale Nagusian jaioa zen eta Santa Marian bataiatua. Kantak aipatzen dituenak ezagutzeko aukera izan zuen beraz.

Uda 94. ADISKIDE KLUBA

- 4-13 URTE. • Uztaila- Abuztua • Goiz edo arratsaldez
- Begirale adituak • Auzo guztiak • 8.500 pezeta hilean
- Euskaraz eta gaztelerez

IZEN EMATEKO EPEA : ekainak 15. SERVISAN 42 38 80




LIBURUDENDA

OKENDO KALEA 4 -

☎ 42 82 89

DONOSTIA

Herrien Europaren alde



Europako Abertzaleekin